




1986ko Abendua

1zenbakia

100pzta

# EL XILILBAKIO



**ELKARRIZKETAK**

**IPUINAK**

**DENBORA PASAK**

**ARTIKULUAK**

**ETAB...**

## TXITXILIBAKIOREN IPUINAK



NIRE AMONAK 25 URTE ZITUENEAN BIZI ZEN TXITXILIBAKIO,  
1950. URTEAN EDO HORTIK.

GIZON ESKALE BAT ZEN, GAIZKI JANTZIRIK ETA SAKUA  
SORBALDEAN GAUZAK GORDETZEKO.

BASERRIETAN, HAUZOETAN ETA KALEETAN ESKATZEN ZUEN.  
ATERPETAN, BANKOETAN ETA HORRELAKO TOKIETAN EGITEN ZUEN  
LO. LEHEN "TOLETXE" BASERRIA ZEGOEN LEKUAN EGITEN ZUEN LO.  
BERAREKIN BATERA, BESTE BATZU, MIL DEMONIOS IZENEKO ANDRE  
BAT ERE; BAITA ERE "ERROTABERRI" IKASTOLA PAREAN DAGOEN  
ETXEAN EGITEN ZUEN LO.

TXITXILIBAKIO ASKOTAN MOZKORTZEN ZENEZ, IZUGARRIAK EGITEN  
ZITUEN BETI, "ERREZABAL" TABERNAN SARTZEN ZEN ARDOA ERATERA.

HAKILA BATEKIN IBILTZEN ZEN, ABRIGO HAUNDI BATEKIN, BETI  
POLTSIKOAK OGI ZATIZ EDO DIRU APURREZ BETETA. ZAHARRA ZENEZ  
PENTSATZEN DA GOIZ BATETAN AURKITU ZUTELA HILDA BANKO  
BATETAN.

ELGOIBARKO UMEEI BELDURTZEKO HONELA ESATEN ZITZAIEN:  
"TXITXILIBAKIO DATOR, TXITXILIBAKIO DATOR ETA SAKUAN  
ERAMANGO ZAITUZTE".



MARIA LEON BILBAO  
LEIRE ESNAOLA BARRUTIA

# ILARGIAREN IZKUTUKO ALDEA



AFALTZEKO LITROERDI ARDO, BES  
TERIK EZ, ETA HORRELAXE LO DA  
GOEN HIRIAN BARRENA SEGITZEN  
DUZU, ITZAL ARTEAN.



DINBILI -DANBALA,  
NOKA ZOAZEN  
JAKIN GABE.



ZERBAITEK, BULTZ EGITEN  
DIZU KALE  
BĀTETIK BĒSTERA.



NEKEAK GELDTZEKO AGINTZEN DIZU.  
ALKOHOLAK BEGIĀK BILDU NAHI DIZ  
KIZU. TXOKO GUZTIĀK DIRA DNĀK  
LO EGITEKO.



BIHAR ERE BIHĀRAMUNA GAI-  
NETIK KENDU EZINEAN IZANGO  
ZARA.

*hder. daudakala*



AAAAAOUAH!!

ORAINDIK EZ DU EGUNA ARGITU?



NON DAGO?


NOLA ETORRI NAIZ HONAINO?



NOLA DEMONTRE IR TENGO NAIZ HEMENDIK?



ZER ARRAIO DA HAU?




NORAINO OTE DOA ZULO MADARIKATU HAU?



HARA, ARGIA ...



BAZEN GARDIA IRTEERA IKUSTEKO!



GIDOLA ETA HARRAZKIAK - JAVIER HERNANDEZ LANDAZABAL

hernandez landazabal 96

3/3

**AMAIERA**

## D. Pedrorekin elkarrizketa

Aurretik ezagutzen ez den pertsona baten etxera heltzen den bezala heldu ginen iarunbat eguerdi batetan D. Pedroren etxera, S. Bartolome Apostoluaren eliza gainean duen etxera. Izan ere ez genuen oraindik ganoraz ezagutzen, baina berak eskeini zigun ia-ia ordu beteari esker ondoko elkarrizketa hau lortu genuen.

*Txitxilibakio:* Hasteko, konta iezaguzu zure bizitza hitz guttitan.

*D. Pedro:* Ni Azpeitian jaiotakoa naiz. Apaiz egin ondoren Afrikara joan nintzen; eta Ruandan, Ertafrikan, egon nintzen hamar urtez. Hona etorri ondoren, bi urtez Parisen egon nintzen Filosofia ikasten. Honen ondoren Lasarten egon nintzen beste lau urte t'erdian, bertako auzo batetan. Lasartetik Martutenera joan nintzen, eta hiru urtez egon nintzen, herrian, ez gartzelan. Eta, azkenik, orain zortzi hilabete hona etorri nintzen, Elgoibarrera.


*TX.:* Zein motibo izan zenituen apaiztegia sartzeko? Familia aldetik bultzatua izan zinen edo zure barrutik irten al zen?

*D.P.:* Nire ustez dena nahastu behar da. Gure familian bi erlijiosa daude, bata Bilbon dago eta bestea Venezuelan egon da. Gu hamaika anai-arreba ginen, eta badakizue orain dela berrogei urte zer giro zegoen erlijio aldetik, eta nire ustez dena nahastu zen. Honela, hamaika urterekin sartu nintzen seminarioan, Saturraranen eta Donostian bukatu genuen.

*TX.:* Zure ustez arazo ekonomikoek garrantziarik izan al zuten hau erabakitzean? Hau da, hamaika seme-alaba izanda, bat ez mantendu behar izateak zerikusirik izan al zuen?

*D.P.:* Askotan entzun izan da hori; baina nik ez dut uste horrek halako garrantzia handirik izan zuenik. Ez nizueke esango sekula gertatu ez denik, baina ez dut uste nire kasua hau denik.

*TX.:* Lehen esan duzunez, seminarioan hamaika urterekin sartu zinen. Baina, nagusiago egiterakoan, zer zailtasun aurkitu zenituen bai



emakumeekiko erlazioetan, lagunartean eta abar?

*D.P.:* Orain dela 20-40 urte badakizue zer giro zegoen, eta emakumeen aldetik, adibidez, gai hori guretzat tabu bat zen. Hala ere, ez dut uste exageratu behar denik. Bestalde, zailtasunak alderdi guztietatik izaten genituen, euskara aldetik, politika aldetik, baina giro hartan sartuta geundenez ez zuten hainbesteraino ematen. Orain zailtasun handiagoak izan zirela ematen du.

*TX.:* Seminarioak suposatzen duen elkarte itxi batetan, zer moduz eramaten zenuten apaizgai eta apaizen artean? Eta seminariotik irtendakoan

*D.P.:* Gu geu apaizgai ginela erlazioa oso distantea zen, bakoitza bere mailan aurkitzen

zen. Apaiz egin ondoren gauzak aldatu egin ziren. Urte onak ziren haiek, misioentzat eta abar; eta gu Afrikara joan ginenean askotan esaten ziguten ea nola joan ginen, Euskal Herrian hainbeste arazo izanik. Orduan apaizen artean elkartasun handia genuen. Orain dagoen giroa, aldiz, nahiko desberdina dela esango nuke.

TX.: Beste gai batetara pasatuaz, apai zen artean nola aldatu da -aldatu baldin bada- abortoa dibortzioa eta era honetako gaiet buruzko eritzia?

D.P.: Hemen arazo baten aurrean aurkitzen gara. Elizak bere "magisterio" edo irakasketa daduka, eta bertan arau orokor batzu ematen ditu, idazkien eta Aita Santuaren mezuen bidez. Baina, kontutan izan behar dugu, nahiz eta Elizak arau orokorrak eman, gero kasu konkretuak daudela; eta Elizak ematen duen arau orokor hori guk geuk geure buruz, bihotzez eta kontzientziaz kasu konkretuetara eraman behar dugula.

TX.: Eta, istilu handiak sortzen al ditu arau globaletatik kasu konkretuetara pasatzeak? Edo, beste era batetara galdetuta, mugitzeko tokirik uzten al dute arau orokor hoiek?

D.P.: Ez, ez da erraza izaten. Normalki ez dira kasu asko egoten. Badakizue erlijio giroa guttitzen dihoala, eta giro honetan ibiltzen den jendeak ez du askotan era horretako arazorik izaten. Hala ere, aplikazioa ez da oso erraza izaten.

TX.: Elgoibarko herrira pasatuz, zein izan zen Elgoibarrek eman zizun lehen inpresioa?

D.P.: Nik, Martutenetik etorri nintzenez, lehenengo ikusi nuena jendearen jatorria izan zen; eta bestela, kokaera geografikoaren aldetik ez zela hain herri polita. Hori zuek ere esaten duzue: Herria zatarra baina jendea jatorra! Jende irekia, zabala aurkitu dut. Hala ere, uste dut nahiko "tradizionala" dela, ohituretan eta abarretan asko fijasen dela, eta aurrera begiratu beharrean, oraindik ere atzera begira daudela.

TX.: Kontatuko al zeniguke egun normal batetan zer egiten duzun?

D.P.: Beno, aurtengo kurtsoan hasi naiz hor, Eskola Profesionalean astean 2 ordu klaseak ematen. Baina, normalki, garai desberdinak izaten dira. Kurtsoaren hasiera eta antzerakoak direnean, lan gehiago izaten dugu. Hasi, orokorki eguneroko mezaz hasten gara. Eta gero, telefonoz deitzen duen eta papelen bila datorren jendetik hasi, gaixoen etxetara joan, kalean ibili, irakurri, munduan gertatzen dena jakin ... Ezin daiteke

esan guk zortzi ordu egunero jarraian jarraian egiten ditugunik, baina gauza ttikiz beteta egoten gara egun guztian zehar, eta azkenean oso gogorra egiten da. Beste batzuetan bilerak ere izaten dituzu, pixka bat ere ikasi behar dugula ..., eta gauza ttikiz betetzen zaigu eguna.

TX.: Sarritan komentatzen du jendeak parroko berriaren jokabidea desberdina dela, aurreko parrokoarenarekin konparatuz: elkarreetara sarritan joaten dela eta abar. Zer uste duzu honi buruz?

D.P.: Nik hau nahiko garbi daukat. Ni Elgoibarrera etorri naiz, lehenik eta behin, pertsona izatera; eta nik nere lana edozein tokitan bete behar badut, betetzen dut. Etxean, elizan, nire bulegoan, kalean, toki denetan izango naiz apaiza, baina hala ere gizona izango naiz.

TX.: Zergatik uste duzu jendea, eta batez ere gazteak, gero eta guttiago doala elizara?

D.P.: Bueno, bada, historia. Gauzak aldatzen joan dira eta lehen jendeak kultura guttiago zuen eta orain, gehiago duenez, erlijioa utzi egiten du, zeren kultura ziurtasuna izan bait daiteke, eta erlijioa misterioa eta sinismena denez, alde batera lagatzen dute. Bestalde, nik esan nahi nuke erlijioa talde ttikietan parte hartzekoa dela, eta horregatik, normala denez, jende guttiago agertzen da elizara, Ebanjelioaren betebeharrak oso gogorrak bait dira.

TX.: Nola ikusten duzu langabezia Elgoibarren?


D.P.: Bai, arazoa hor dago. Ni ez nago hor oso sartuta, baina entzuten dudanez "maquina-herramienta" hobetzen dihoa. Bestalde, gazteak ere hor daude, lanik gabe, eta horrek delikuentzia bultzatzen duela argi dago, drogadikzioarekin batera. Bestalde, parrokia herri erdian egotean, igartzen da langabeziak indar asko duela gazteen artean, plazan asko ikusten bait dira.

TX.: Eta, bukatzeko, nola ikusten duzu drogadikzioaren arazoa Elgoibarren?

D.P.: Badakit drogak eragindakoen senideen talde bat biltzen dela, eta lan egiteko gogo handiz ikusi nituen, baina medio guttirik. Karitasekin hitzegin nuen eta ez dirua bakarrik emateko, orain Karitaseko pertsona bat bilera guztietara joaten da, laguntzera. Baina, drogari buruz zer ikusten dugun nahiko argia da. 5 gazte SIDAz hil dira, nik neuk 2 enterratu ditut. Ni inpresionatuta nengoen datu hau entzutean. Arazoa benetan oso larria da.

Eskerrikasko D. Pedro Txitxilbakioarentzat zure etxeko ateak zabal zabal ireki zenituelako.

# HERRIKO ROCK TALDEEN ZORITXARRAK



*Hogei urte baino gehiago pasa dira jadanik, Ingalaterran Rock and Roll izeneko musika berri eta zaratatsu hura sortu zenetik.*

*Rock-aren agerpenak izan zuen bere arrakasta gure herrian ere, eta horrela, berehala hasi ziren agertzen lehenengo entusiastak, bateria eta gitarra elektrikoa esku artean zituztelarik, gaur egun horren ospetsuak diren Rock and Roll-eko pertsonaiak imitatzen.*

*Ordutik, gure herrian batek baino gehiagok izan du Rock talde bat osatzeko ideia. Batzuek, aurrera egiteko suertea eta aukera izan dute; beste batzuk, tamalez gehienek, utzi egin behar izan dute arazo desberdinak direla medio.*

*Mundu hau hobeto ezagutzeko herriko lagun gazte batzuegana jo dugu. Oraindik ezin daiteke esan erregularki talde bezala*



funzionatzen dutenik, baina behintzat hor dabilta jo-ta-ke zerbait lortu nahiean. Uste dugu, beraien esperientzia propiotik erakutsi diezaguketela mundu honetan sartuak daudenen arazo, kezka eta ikuspegiak.

Ez da oso atzera jo behar gogoratzeko Rock taldeen inguruan orain dela urte batzuk nahiko "mobida" garrantzitsua zegoela gure herrian. Gaur egun, ordea, badirudi gauzak aldatu egin direla. Beraiek zihurtatzen dutenez, "orain ezinezkoa da" mobida" batetaz hitzegitea. Orain dela urte batzuk, beharbada bai, baina guretzako gaur herri honetan ez da mobidarik existitzen.

Baieztape hau egiaztatzeke, adibide bat eman digute, "orain dela sei bat urte bakarrik, herrian hamar talde inguru zeuden funtzionatzen, baina poliki-poliki desagertuz joan dira, orain gauden lau taldeetaraino iritsi arte".

Talde batek bere lana uztearen arrazoiengatik galdetuak izan direnean, hau esanez erantzun dute: "Arrazoiak desberdinak dira kasu bakoitzean, baina normalean gertatzen dena jendea nekatu eta erre egiten dela. Askotan zure sakrifizio hori ez duzu konpentsatuta ikusten, eta horrela oso zaila da aurrera egitea".

Hasieratik argi eta garbi hitz egiten dute, elkarrizketa erraz dijoa, ia bakarrik: "Faktore asko izaten dira lehenengo momentutik aurka jartzen zaizkizunak; musika ekipo batek balio duen dirutza, lokal egoki bat bilatzea, medioen urritasuna ... " zihurtatzen dute.

Gure herrian gauza bitxi bat gertatzen dela diote ondoren. "Ez gara lotsatu behar herri honetako jendea oso hotza dela esaterakoan. Badaude talde batzuk jadanik ez dutela hona etortzerik nahi. Jendea orokorki hartuta, jaialdi bat dagoenean ez da erraz entregatzen". Alderantziz, Elgoibarren Rock musikaz asko dakien jendea dagoela diote, "dena ez da ba txarra izango herri honetan".

Benetan azpimarratu nahi dutena jaialdiak hurbiltzen den jende askoren jarrera da. "Badirudi batzuek ondo pasatzera baino kritikatzera joaten direla. Hori egitea oso erraza da, eta oraindik gehiago gu bezalako talde baten aurrean. Gu 200.000 pesetatako ekipo batekin ateratzen gara plazara, ekipo egoki batek 3.000.000 peseta balio duenean".

Aurrera jarraituz, talde askok pairatzen duten promozio eza da beraientzat arazo kezkarrienetarikoa. Horrela, adibide bezala, Zazpiki Irratiak antolatutako "Udaberriaren eguna" aipatzen dute, bertan herriko Rock talde batzuk jotzeko aukera izan zutela.

"Gure ustez - jarraitzen dute esplikatzeko - horrelako jaialdiak sarriagotan egin beharko liriateke, bakoitzak dakiena erakusteko une bikainak bait dira".

Diru piska bat ateratzeko eta aurrera egin ahal izateko talde asko dira, ezta, berbena eta antzeko ekinaldietan saiatzen direnak; "Esan behar da ez direla oso rentableak, baina gutxienez jo eta diru piska bat ateratzeko aukeran izaten gara".


Elkarrizketa puntu honetaraino iritsi denean, berriro eurek aurre egin behar dituzten hamaika arazoetaz mintzatzen dira; "moralak, gauzak egiteko gogoak eta musikarako grina dira aurre egiteko indarra ematen digutenak". Bestela, jarraitzen dute esaten "aspaldi utzita izango genuen gure lan hau".

Beraien antzeko taldeen etorkizuna ez dute batere argia ikusten: "Egia esan, etorkizuna nahiko ilun ikusten dugu, baina gauzak hobeto joango direlakoaren itxaropena ez dugu inoiz galduko".

"Hertzainak" taldearen abesti batek dioen bezala, Rock and Rollak Euskadin ez du dirurik ematen, baina inon baino alaiagoa izango da?. "Horrela izan daiteke, baina ez dugu ahaztu behar, Rock-a, tamalez, oso maniatua dagoela leku guztietan, bai ekonomikoki eta bai politikoki.

"Rock and Roll-a, jarraitzen dute adierazten, hasieran gazteen elkartasunerako eta solidaritaterako izan beharko zukeena, orain gazteria gero eta gehiago zatikatzen ari da".

Bukatzeko, batzuetan Rock-arekin elkarturik agertzen den biolentziaz hitzegiten dugu. Garbi utzi nahi dute arazo hau, adieraziz, "Rock-a batez ere energia dela, baina inolaz ez biolentzia. Normalena da jaialdi batetara ondo pasatzera eta musika entzuterako joatea, baina badirudi jende batek hau ez duela horrela ulertzen, eta hauek dira Rock-aren esentzia hori apurtzen edo gaizki interpretatzen saiatzen direnak".



Epi, Romay, Sibilio, L. Iturriaga jokalaria hauen artean badugu elgoibartar bat: Ion Imanol Rementeria.

Orain 7 urte irten zela eta saski-baloia du bizimoduz. 22 urte dituelarik eta bere 2,02 m-kin bere indarrak neurtzen ditu estatuko jokalaria ospetsuenekin.

Ez da gehiegi agertzen Elgoibarren eta etortzen den bakoitzean entrenamenduak, txikiteoa, neskak eta familia direla eta, igarotzen ditu ordu gehienak; dena den, taberna batetan harrapatu dugu eta gure galderei erantzuteko prest zegoenez ondorengo elkarrizketa hau prestatu dugu:

TX.: Zer aldaketa nabaritu dituzu Elgoibar den bezalako herri ttiki batetik beste handi batetara joan zarenean?

ION I.: Aldaketa garrantzitsuena familiatik urrun aurkitzea izan zen eta baita, noski, hiri ezezagun batetan bizitza berri bat hasi beharra ere. Haseran nahiko arraroa egiten da baina ezagutzen zoazen heinean bertara egiten zara.

TX.: Euskal girorik ikusten al da Madrilan?

ION I.: Kalean ez, baina badago euskal etxe bat; bertan bizi garen euskaldunok Euskal Herriko aktibitateak mantentzeko bertsolari eskola, euskal-dantza, txistua, euskarako klaseak e.a. gainera bertan meza euskaraz ematen da eta meza ondoren "euskal txikiteo" bat izaten da, noski, dena euskaraz, hau ere euskal kulturako zati garrantzitsu bat bait da.

TX.: Gure berriemaileek esan digutenez pisu batetan bizi zara baina ez digute argitu zurekin bizi direnak arrak edo emeak diren.

ION I.: (barrezka: Ja, Ja, Ja ...) Hik zer uste dek.

TX.: Benga, benga, argitu.

ION I.: Mutilak, mutilak dira. Bat bizkaitarra eta bestea gipuzkoarra. Haseran erdaraz hitzegiten genuen gure artean, hirurok euskaldunak izan arren, baina orain euskara da gure arteko hizkuntza.

TX.: Madriletik Elgoibarrera etortzen zarenean zer aldaketa nabaritzen dituzu?

ION I.: Ez dudala inor ezagutzen eta ni denek ezagutzen nautela. Gainera euskara gehiago entzuten dela kalean, gero eta gehiago baina gauza baten ez da aldatu herri hau, lehen bezain aspergarria jarraitzen duela.

TX.: Zure alturarekin jendea harrituta geldituko da askotan eta baita ere tontakeriak esango dizkizue. Nahiko aspergarria izango da, ez?


ION I.: Bai, nahiko aspergarria da denen roiloa entzutea, denak gauza berdinarekin etortzen bait dira: "Zer giro egiten du hor goian?" eta abar ... eta denei erantzun berdina eman behar eta aurpegi ona ipini behar.

TX.: 7 urte daramatzazu Madrilan eta oso ongi ezagutu ere. Gaur egun non nahiago zenuke bizi, Madrilan ala Elgoibarren?

ION I.: Nahiko zaila da leku bat aukeratzea. Kontutan eduki behar dira gauza asko, lana, jendea eta lekua bera nolakoa den. Lana han egiten dut, lana dei baldin badaiteke. Lekua, askoz ere politagoa da Euskadi, hori argi dago. Eta, jendea? hori bai zaila! Oso ezberdina da jendearekiko harremana leku batetik bestera. Madrilan harremanak edukitzea askoz ere errazagoa da baina harreman horrek ez du hemengoaren sakontasunik. Oso desberdina da, benetan zaila da bat aukeratzea.

TX.: Esan duzu jendearekin harremanetan sartzea Madrilan errazagoa dela. Neskekin ere berdina gertatzen al da?

ION I.: Bai, bai. Han ez dira egoten mutil kuadrilak eta neska kuadrilak, hemen askotan ikusten dugun bezala, han ez dago horrenbeste sexu ezberdintasunik, neska



**ION I.:** Madrilen dagoen askatasuna, askoz ere jende guttiagok ezagutzen zaitu eta ez zaituzte horrenbeste kontrolatzen. Elgoibarren askatasun hori ezin da aurkitu.

Elizako kanpandorrean 9ak entzuten dira, Ion Imanolen tripetan ere zerbait entzuten da. Dirudienez gosea du; honela agurtu egiten gaitu eta etxerantz abiatzen da afari on bat egiteko asmoarekin.

Ion Imanol joan zaigu etxera afaltzera intentzioarekin gosea kentzera. Horra! Horra! gure Ion Imanol

batekin irtetzen zara mutil batekin bezala.

**TX.:** Esan digutenez andregai bat duzu Madrilen, egia al da?

**ION I.:** Orain ez, izan nuen lagun handi bat baina hura bukatu zen. Orain badut beste proiektu bat eta ea zortea dugun.

**TX.:** Ea, ba, proiektu hori aurrera ateratzen den. Eta, Madrileko "mobida" delako hortaz, zer diozu?

**ION I.:** Ruina, ez dago ezer erè ez, ambientea topatzera kanpora joan behar gara.

**TX.:** Zer ekarriko zenuke Madriletik?



# ipuinak



## EULI

Urte asko joan dira ordudunik.

Xabier Eguren, Aitor Azkarate eta hirurok lagun-minak ginen. Lehenbiziko jaunartzea elkarrekin egin genuen eta herriko eskola berean ikasi.

Gazte denboran batera ibili ohi ginen beti. Xabier eta biok ezkondu ginenean ere, ez genituen geure adiskidetasunaren lokarriak lazotu. Aitor mutilzahar gelditu arren, gurekin irteten zen igandejaiegunetan. Astegunetan ere sarri elkartu ohi ginen «Gabi» edate-txean.

Igandeetan, goiz jaiki eta eguerdira arte mendirate bat egiten genuen. Ibai aldeko bazterrak ere oso maite genituen, gazte denboran han egiten bait genuen igerian.

Aitorri umetatik «Euli» deitzen genion. Egia esanda, gaitzizena baino gehiago maitezina zen. Guz guztiok, laztan bait genuen Aitor, hain ona, han lagun bihozti, hain atsegina bait zen beti.

Bestela goitizena ez zegoen horren gaizki ipinia. Aitor aurpegiz zurbil eta gorputzez maxkal zen. Xabierren ondoan batez ere —hau bai mutil galanta! —ñaña ematen zuen. Aitor txikitandik gaixorik ibiltzen zen, birikietatik edo. Koxkortu zenean ere, bularralde mutiko batek baino zabalago ez zuen; besamuturrak andereño besamuturrak.

Bere osasun eskaxa zela eta, sarritan ezin zituen burutu guk egiten genituen bihurrikeriak. Maiatz aldean gu gereziak ostutzero joaten ginenean, bera herriko enparantzan gelditzen zen, noraezean.

Udaroan Xabier eta biok ia arratsalde osoa ibaian barrena igarotzen genuen «Odria» aldean. Xabierrek zaldi batek baino osasun hobea zuen. Igerian geratu gabe iharduten zuen.

Aitorrek ba zekien igerian; amak, ordea, maiz galezari ohi zion uretan ibiltzea, kaltegarri zitzaioela eta. Furrustada batzuk gorabehera, gixajoak beti egiten zuen esandakoa.

Holakoetan, gugandik arruti ez ibiltzearren, ibai ertzean esertzen zen, guri begira, beste zenbait mutikorekin berriketan edo ibaiandoan hazten ziren urritz eta haritz sastraketan jolasean.

Xabier oihuka hasten zitzaion zirikalari: «Euliiii... Hor egon beharrean hator honaaa... Hik gauza bat bakarra daukaaak. Beldurra...».

Beste kontakizunik ez zenean, beti genuen irtenbide bat. Aitorri adarra jo. Txantxak eramateko kolko haundiko gizona hura! Ez zen inoiz berotzen. Arrazoi hontatik ere ba zetorkion «Euli» izena. Beste edonor joka hasiko zen, hari esandakoak entzunda. Berak, ordea, haserre guztiak hitz leunez goxatzen zituen:

«Tira, mutilok, ganoraz hitz egiteko ordua duk!».

Apirileko igandea zen; eguzkiz beteriko arratsaldea. Aurreko egunetan euri jasak eginak zituen. Batbateko eguzki berotze hark poz haundiago ematen zuen. Aitor, Xabier eta hirurok ibai aldera txango labur bat egitekotan abiatu ginen.

Ibaia uholde antzean zetorren. Bi aulki luze aurkitu genituen; batean bi emakumek hizketa bizian ziharduten. Aintzinean hiru haur olgetan. Beste aulkian eseri ginen.

Geure aurrean baranda; beherago ura zarataka. Laster gure elkarrizketak su hartu zuen. Xabierrek eta biok euskara heriotz-zartatekoak jota zegoela genioen. Euskera erdal kulturarekin ihardukitzeko gauza ez zela.

Aitor, ostera, baiezkorra zen. Euskerak goiz edo berandu eskoletan sarrera izango omen zuen. Atzenik Euskalerriko Unibertsitateetan ere nagusi jarriko.

Eztabaida hontan ari ginela, plasta!; zeredozer uretara erori zen. Bi ume nigarrez. Hirugarrena...? Jauzi baten baranda ondoan ginen. Emakumeak oihuka. Xabier eta biok konturatu orduko-beldurrez zurrundurik bait ginen— Aitorrek «Aitaren» egin eta txamarrara ta guzti barandatik behera uretara jauzi egin zuen.

Segundu batzuk igaro ziren. Unealdi ikaragarria. Denborak bere denboratasuna galdu zuela zirudien. Gero, ordea, gure barandatik 40 metrora Aitor ikusi genuen besoetan umea zuela.

Uraldeak biak plastikozko ontzi hutsak bezala zaramatzen. Ibaia haitzez beterik zegoen. Gu ere harriturik ginen, hitz honen jatorrizko esanahian. Begiak ez ezik, arima osoa ere bi gizaki haietan josita genuen.

Behingoan biak haitz haundi baten gainean azaldu ziren. Urak bere abiaduran geldiarazita, indarka jotzen zuen haitz haren kontra.

Ez Aitorrek, ez eta umeak ere ez zuten mugimendurik egiten. Gu eta ordurako begira zeuden beste herrikide batzu beraiengana abiatu ginen. Nekez alboratu gintzaien. Biok konorte gabe zeuden.

Zelaitxo batera ekarri eta haurrari arnasa harrerazi genion. Laster, begiak zabaldu zituen. Salbatuta zegoen.

Aitorrek, ostera, ez zituen gehiago mundu hontako ikusgarriak ikusiko. Lokian ebaki haundia zuen, haitzaren aurka jotzerakoan egina, nonbait.



# Victor

---

## Vigora joan eta euskera ikasi

---

# Nuñez

Bata bestearen aurrean gaude eserita kafe bana eskuetan dugularik. Berriketan ari gara, baina, bere gurasoak Soriakoak izan arren, euskaraz mintzatzen gara. Victor Nuñez du izena eta zuetariko askok ezagutuko duzue anai bikiak direlako. Orain urte batzuk hasi zen euskaraz ikasten eta orain ere jarraitzen du.

**GALDERA:** Noiz hasi zinen euskaraz ikasten?

**ERANTZUNA:** Ba, orain 6 urte apuntatu nintzen euskaltegi batean.

**G.:** Zerk bultzatu zintuen apuntatzera?

**E.:** Zerbaiten falta sentitzen nuen. Nire gurasoak kanpokoak izan arren, ni hemen bizi nintzen. Horregatik nire lankide batzuekin apuntatu nintzen.

**G.:** Nola moldatu zinen?

**E.:** Hasieran pentsatu nuen ez nuela sekula ikasiko, baina nire klaseko lagunek asko lagundu ninduten. Gero gustoa hartu nion eta orain arte. Gainera esan behar dizut bi urtetan ikasketak utzi behar izan nituela soldaduzkara joan behar izan bait nuen. Vigora hain zuzen.

**G.:** Han, ikasitako asko galduko zenuen?

**E.:** Ez. Euskarazko liburuak eraman nituen eta euskara ikasten jarraitu nuen.

**G.:** Eta hemen, Elgoibarren, nola ikusten duzu euskararen egoera?

**E.:** Egoera larria da. Toki askotan bezala euskara gero eta gutxiago mintzatzen da. Halere esan behar dut badagoela jende asko euskaraz ikasteko gogoz.

**G.:** Zure koadrilan, hain zuzen?

**E.:** Nire koadrilaren egoera, Elgoibarko beste koadrila askorena bezalakoa da. Gehienek euskaraz badakite, baina betidanik gure harremanak erderaz izan dira. Izan genuen "kontzientziazioko" garai bat eta euskaraz mintzatzen hasi ginen, baina ez zuen denbora asko iraun. Handik laisterrera erderara jo genuen eta hala jarraitzen dugu.

**G.:** Zer arrazoi duzun!. Nire koadrilan gauza bera gertatu bait zen, normalean ostiral eta larunbateko gauetan. Baina jarrai dezagun elkarrizketarekin. Koadrilan ez bazara mintzatzen euskaraz zaila izango zaizu ikasi duzuna ez ahaztea.

**E.:** Horregatik apuntatzen naiz urtero euskarazko klaseetara, zeren honela badut euskaraz mintzatzeko toki bat. Lehen esan dizudan bezala Elgoibarko kaleetan gero eta gutxiago entzuten zaio jendeari euskaraz hitzegiten. Euskaltegian behintzat euskaraz hitzegiteko aukera dut.

**G.:** Eta euskaldun zaharrek zer harrera izaten dute zuekin?

**E.:** Esan behar dut oso ona izaten dutela. Nabaria da gure hizkerak ezberdinak direla. Guri ere, euskaraz hitzegiteko erraztasuna faltatzen zaigu, baina horretaz ere ohartzen dira eta lagundu egiten digute.

Kafea amaitu zaigu eta elkarrizketa bukatutzat emango dugu. Pozgarria da euskaldun berri batekin hitzegitea, hauek daukaten ilusioak aurrera egiteko gogoia ematen bait du.

# Argazki saioa



Foto: José Cebrian



Foto: Manolo Rodríguez

# ONGARRIri esker

# Klarisekin Elkarrizketan

Klarisen komunitatea 1533. urtetik dago Elgoibarren finkaturik; baina "mundu isil" hau nahiko ezezaguna da elgoibartarrantzat. Horrela, larunbat euritsu baten konbenturuntz abiatu ginen, zerbait gehiago jakitzeko asmotan. Atea zabal zabalik aurkitu genuen, eta bertan emakume talde jator bat gure zai. Kafe eta pasta goxo batzuen inguruan hasi zen gure elkarrizketa.

TXI: Hasteko, esaiguzue nolakoa den zuen egun normal bat.

KLA: Ba, goizeko 6tan jaikitzen gara, 6,30tatik 8,30ak ingurura arte otoitz egiten dugu, eta gero kafitesne bat da gure armusua 9tatik 12etara, edozein langilek bezala lan egiten dugu, Sigmarako eskulan batzuetan. Isiltasunean egoten gara, Jainkoarekin harremanean, baina, ez pentsa! batzuetan ere musika xuabe bat jartzen dugu. 12 etatik ordubatak arte berriro otoitz egiten dugu, eta ondoren bazkaldu. Bazkalondan denbora librea daukagu 3rak arte, eta gero, errezu batzuen ondoren 6rak arte berriro lanari ekiten diogu. Gero ordubetez "formazio ordua" daukagu, eta bertan, Biblia, eliz gaiak, gizarteko arazoak sakontzen saiatzen gara. 7tatik 8,45rarte errezatzen egoten gara. 9rak aldera afaldu, eta 9,30tan arratseko otoitza egiten dugu. Eta halaxe da ba, gure egun



normal bat. Baina larunbatetan kantu ensaioak izaten ditugu, eta igandean, jai eguna denez, bakoitzak nahi duena egin dezake, konbentu barruan, noski.

TXI: Ikusten dugunez, otoitzean denbora asko pasatzen duzue, ez?

KLA: Bai, halaxe da, otoitza da gure bizitzaren ardatza, eta batera gure helburua. Gure botuak pobretasunean eta laguntasunean oinarritzen dira, eta guzti hau ebanjelioaren inguruan.

TXI: Baina guzti honekin zer biltzen duzue?

KLA: Ba, gure meta, garbitasuna, barruko pake nahia dira. Maitasuna Jainko

eta gizonen alde, Berak betetzen bait du gure bizia. Guk, pertsonalki ez dugu familia bat osatu, baina libreak izatean, espiritualki gizaki guztiak maitatzen ditugu, gureak balira bezala.

TXI: Eta, ez duzue pentsatzen bizimodu hau zuen bizitza alferrik galtzea dela?

KLA: Sinismenik ez duenarentzat, horrela izan daiteke, baina guretzat oso bizitza aberatsa da. Lortu dugun pake giro honek esperantza bat ematen digu munduari begiratuta, zeren beitu, gu 13 emakume ezberdin gara, bai edade eta izakeran, baina ahizpa maitasun giro bat lortu dugu gure artean, esaten den bezala 4 paret hauen artean. Gurea "okardade solidario" bat da.

Beraien artean antzematen dugun giroak, gure ideiak pixka bat aldatu ditu. Barreak, alaitasunak, tokia daukate emakume hauen bizitzan.

Emakume euskaldune hauek elkarte giro goxo bat lortu dute. Denak gazte zirelarik sartu ziren konbentuan, eta ez dira damutzen, Otoitz bizitza honek guzti betetzen ditu. Inon aurkitzen ez zuten betetasuna, Jainkoarekin otoitzean lortu dute.

Ordu pare bat mundu paketsu honetan igaro ondoren, euriak jarraitzen du, eta Mala aldeko giro zaratsua arraro egiten zaigu ...

# ipuinak

## ZUHINTXO

Lehortean

Zuhintxo mundu honetara nola heldu zen ez zuen inork jakin. Ekaitz haize bolada izugarri batek ekarri zuela aditu nion «Gormendi» arrantzale zahar itsuari.

Ez nuen nik hori sinetsi. Berritsu hutsa zen, haserre-tu arte, baina, Zuhintxorekin batera toki askotan ibilitako usño polit baten esana zinago iruditu zitzaidan:

Ezkutu ezkutuan Lamiazulo batetik atera omen zen, munduko berrien jakin minez, amari eskolako laguntxo batengana zihoala gezurra esanda.

Dena dela, han zegoen Zuhintxo, bizi bizirik, mundu honetako ederra aztertu nahirik. Hau zen ukatu ezinezko egia.

Lur azalean oinak ezarri orduko, nardagarri eritzi zion munduaren berdintasun txepelari. Beraz, egunero goiztirian argizpi bat erhez ukitu eta hortzadarraren koloretan zartaraziz, naturalezaren izate guztiei zortzeko moduko jantzi nabar diraditsuak ematen zizkien.

Gauza harrigarri asko egiten zuen. Nik batzuren batzuk bakarrik aipatuko ditut.

Beti nigarrez ikusten zituelako, hodei eta lainoei barre eragitea bururatu zitzaion. Haizeei zubien begietan zehar (xirularen zulotxoak bailiran) igarotzen irakatsi zien, musikarik eztigarriena aterez.

Zuhaitzak beti toki berean egoteaz asperturik zeudela ohartuz, honantzà harantza ibiltzeko ahalmena eman zien. Makalak eta haltzak berehala hasi ziren beren denbora guztiko irrika betetzen: sortu zirenetik hankak garbitzen zizkien ondoko hibaletan mainua hartuz. Urritze eta gaztainondo gaztetxoaren poza mendietan jauzika eta gordeka!

Udaldian sargoriak eta sapak jo zutenean, leizezulo-rik itzaltsuenetako erreka hoxkirriak eskuetan hartu eta basamortuz basamortu joan zen, lur egarrituei ura ematen.

Bakartatean, inongo adiskiderik gabe bizi ziren izarño ttiki ttiki batzu, egunez bere altzoan jaso eta gauzez bere begietan jartzen zituen, mundua hurbil hurbiletik ezagut zezaten.

Bere ibilaldi guztietan musker baten larruz egindako sakeltxo zeraman isatsaldean. Musker harrozko izana zen hura, hiltzerakoan larrua baldintza batez eskaini ziona: egurastera joaterakoan buztanaren puntan ikurrin gisa eramatekotan.

Sakeltxo horretan Zuhintxok udazkeneko gau oskarbi batetan ebatsitako ilargi leuna gordetzen zuen, herekin ispiluauren aurrean bezala, bere burua apaintzeko.

Besterik ere ba zuen sakeltxoan. Itsas txirla bihurritsu bat, lorik egin ezin zuenean Euskal Herriko haur kanta zaharrak abesten zizkiona.

Munduz mundu ibili beharra ez zuenean, hondartzetan jolastea atsegin zitzaion. Itsas ertzean dortoka haundi baten gainean eserita, arraintxoei solfoa irakasten zien, bere eskutxoaz konpasa eginez.

Bestetan, egaztinen gainera igotzen zen, arranoei hegan jokatzeko. Beleak eta mikak, atzean geldituz, haserre jartzen ziren Zuhintxorekin eta grekozko izen itsusiak jaukiltzen zizkioten.

Itsasontziek oso liluratsen zuten Zuhintxo. Ba zekien, jakin ere, itsaso handi ezezagunetan ontziak zuzentzen, izurde batez maitemindu egiten zen bakoitzean norakoa aldatu arren.

Beste gauza bitxiak ere egiten zituen. Sagarrondoei, txirikorda eginda ikusten zituen, sagarrak osten zizkien, pisuarekin sufri ez zezaten.

Egun batez, Zoo batetara joan, jarri bera ziminoak igotzeko Zoo erdian zutik zegoen eukaliptus haundi baten adaburuan eta animalia guztiei Haendelen Aleluia kantaerazi zien. Sekula ez omen da gehiago hola-ko abesti goxo zoragarriarik entzun.

Guk arruntzat jo genitzakeen gauza batzuk bere begi niniak bezain ongi gordetzen zituen hala halarik: landare biziz egindako erloju bat, arabieraz mintzo zen katuñoa, Kant-en esaldi sintetikoei kritika gogorra egiten zien hiru hilabetetako astotxo bat eta maitasunaren sekretuez mintzatzeko zitzaizkion bi andrakilatxo.

Ba zituen bere makaluneak ere. Bere ahotsa lehen-dabiziko aldiz magnetofonoz ertzun zuenean, lauorrian jarri zen Zuhintxo. Arineketan ezkutatu zen balekume baten ahoan. Ez zuen handik irten nahi; nik, baina, bildots marraka eginez, kanpora atera nuen.



Orduan ohartu nintzen oso lotsatia zela, ahalmen ikusgarri haiek eduki arren. Jende tartean ibiltzeaz ahalge zen. Hura bai sentibera! Kokodrilotxoaren eta kamalehoien nigar malko faltsuak ikusiz, berak ere, xaloak, nigarrari ematen zion, orduetan eta orduetan, oreintxoak edo katagorriak etorri eta ipuitxoaren bat kontatu arte.


Halako egun batez jakinmin bereiziz ondoratu nintzaion. Zuhintxoaren bihotza barru barrutik aztertu nahi nuen. Bera ezagutzeko eroaren begiak jantzi behar nituela esan zidan. Ez zen lan erraza; nekearen nekez, oster, jarri nintzen hartara.

Behin batez, biok bakarrik hondartzan geundela, eskuetik heldu eta «maite zaitut, maite zaitut» esan nion.


Haiek ziren, ausaz, Zuhintxo mundu honetara behartu zuten hitzak. Printsesa sorginduaren antzera, bat batetan iratzarri egin zen, inoiz ikusi ez baninduen bezala begiratu zidan eta atzera atzera eginez, uhin batetan eserik urrundu egin zen, urrutira eta urrutira, ezpainetan irriñoa eta niri agurka, musu zapiari eraginez.





  
 Laguntzaile  
 Gipuzkoako Foru Aldundia  
 ELGOIBAR HIRIKO UDALA

ELGOIBARKO  
 IZARRA  
 Euskara batzordea



**EUSKALERRI BATUAK**  
**EUSKARA BATUA**

# Altzolako Balnearioa



Behin edo behin, egun nazetsu eta euritsu batean, Altzolara erromantikotasun eta dekadentzi bila bazoaz aurkituko duzu, baina ez hitzegin inorekin, soilik joan, egon, eta sentitu; errealitatea, sarri bezala, ezberdina baita.

Txitxilibakiok bera egin zuen, eta Jose Mari Balanzategi, balnearioko jabearekin, hitzegin genuen. Honek, uren produkzioari buruz zegokion guzia argitu zigun, negozioaren urte onak eta txarrak. Baina, ba zer aurkitu ez genuen giza alderdia ere, historiaren alderdi bizi eta beroa, anekdota zerbait esan zitzaigun arren. Agian beste batean hitsegingo dugu horretaz ...

**TXITXILIBAKIO:** Noiz hasten da martxan balnearioa? hots, uraren aurkikunde.

**JOSE MARI BALANZATEGI:** Ba, itxura denez, 1800. urte inguruan. Behin, haur batzuk omen zebiltzan ibaian, eta ertz batean ura epelago zegoela konturatu ziren. Beraz, lehen ur analisiak egin, eta uraren azaltze puntua Ibai ertzean dagoela ikusten da. Orain sasiz inguratua dagoen molla antzeko hortan.

**TX.:** Zein da uraren iturburua?

**J.M.B.:** Lur azpian dago, 600 edo 700 bat metrotara. Orain arte pentsatu izan da Arno mendian zuela jatorria, baina, azken ikasketek

Izarraitzen jarri dute sorburua. Ur hau, filtratuaz edo, lur azpian 600 edo 700 metrotako izugarritzko pantano antzeko batetara joaten omen da. Honen tamaina inork ez daki; nork esan, Elgoibartik Mendarora, edo beharbada Eibartik Debara, auskalo!. Hau da uraren isurtzean aldaketarik ez egotearen arrazoi, beti kantitate eta tenperatura berdina, 145 litro minutuko 30 gradutan, edozein baldintzatan, eurite, zikate, etab.

**TX.:** Zein da ur honen aplikaketa?

**J.M.B.:** Giltzurrunetarako da. Zeharo frogatua dago, bai, Buenos Aires edo beste lehiaketa batzutan irabazitako sariengatik, bai balnearioan ikusi ditugun ehundaka kasurengatik, harrien botatzeak, etab. Honela, balnearioa zabalik zegoenean tratamenduak zuzentzen zituen sendagile bat izaten genuen, Madriletik etorria.

**TX.:** Soilik ura edan, ala masaje edo antzerakorik ba ziren?

**J.M.B.:** Ez, soilik ura zen, bai edanaz, bainuak hartuaz, edo txorroak, hau da, makina batek, tenperatura honetan, edo presio hartan, artikulazioetan ura aplikatzen zuen. Ah!, hori bai, ur hau oso diuretiko da, edan eta egun guzia pixanean igaro dezakezu.

**TX.:** Ura iturritik etorri datorren moduan saltzen duzue? Azalduko zeniguke hau?

**J.M.B.:** Bai, bere osotasunean. Guk soilik boteiletan sartu, kaxetan pilatu eta saldu egiten dugu. Ez da lehen bezala, ikusi marrazkia! eta balnearioa erakusten duen kuadro idealizatu bat azaltzen digu.

Eta ... Honela, ura zela eta ez zela balnearioa funtzionatzen hasi zen.

**TX.:** Hori da zuk adieraztea nahi duguna. Nola hasten da istorio guzi hau?

**J.M.B.:** Begira, nahi baduzue balnearioa erakutsiko dizuet eta esplikatuaz joango naiz.

**TX.:** Bueno, konforme, bulego antzekoa atzean utzi eta pasillo luze, estu eta hezeetan barna sartzen gara.

**J.M.B.:** Zer galdetzen zenidaten?, ah bai!, sorrera.

Aurrenaren ondoren, sendagile batzuk aurrera eramane zuten proiektua, gero beste nagusi batzu izan ditu, eta azkenik familiarki niri iritsi zait. Bestela, jendea 1900 inguruan

hasi zen gogoki etortzen, 1845ean "baliogarritasun publikokoa" zela izendatu baitzuten. Poliki poliki auge bat izan zuen, badakizu "Belle Epoque" eta Gerra ondorenean. Azkenik, igo zen bezalaxe jeisten joan da jendearen etorrera, eta 1976.urtean itxi egin behar izan genuen. Beno, XIX. mendeko iskribu batzuk ere esaten digute nola Napoleonek bi sendagile partikular Alzolarak bertako urak frogatzera bidali zituen. Iskribuen arloan balnearioko artxiboa Gerra denboran galdu zela esan behar da.

TX.: Konkretuan, ba al dakizu zein urtetan hasi zen negozioaren gainbehera?

J.M.B.: Ezin diezazuket zehatz mehatz esan. Bi faktore garrantzitsuk porrokatu zuten hau: modaren joatea, hots, garai bateko sendagileek garrantzia kendu zioten osabide honi, eta, bestalde, ETaren fenomenoak Euskalerrian, honek betidaniko bezeroak beldurtu zituen. Honen frogak materialak baditugu, bezero on batzuk bidalitako eskutitzak hain zuzen, hau esaten zigun momentuan kolomen aretoan geunden, zaharkitua, baina bere handitasuna hor hemenka erakutsiaz.

TX.: Kontaiguzu, zer nolako giroa izaten zen hemen.

J.M.B.: Hona onenetikoa etortzen zen, aberatsak eta jende garrantzitsua, hori bai, kriston kotxeekin, noiz, eta kotxeak ia ikusten ez ziren garaian. Beno jende xeheagoa ere etortzen zen, hau sasoiaren arauera zelarrik, aberats eta handikiak udaldian, eta jende arrunta udazken aldera.

TX.: Eta, pasadizu edo anekdotarik ez dakizu?

J.M.B.: Ba, orain momentuan ez du bat ere gogoratzen, baina mila daude, liburu bat idazteko beste.

TX.: Eta, zer diozu ziklista itzuliari buruz? Hemen gelditzen omen ziren?

J.M.B.: Ejem!, hemen bertan ez, baina bai "Hotel Alzolan". Bai, nahiko urtetan Alzolatik pasa ziren. Alzola ez dirudi, baina, uste baino garrantzitsuagoa da. Honela, ibaiak presak izan baino lehen, aduana antzeko bat genuen, non kostaldetik zetorren guzia deklaratu beharra baitzegoen hemen. Itsasuntziak lastratuak ziren, eta esaten da Espainian sartu zen lehen kafea hona ekarri zutela.

TX.: Nolakoa zen eguneroko bizitza balnearioan?

J.M.B.: Goizez ez zen inor irtetzen, eta, arratsaldean, Deba, Zarautz eta antzeko lekuak bertan izanik, jendeak irten egiten zuen, bederatziak aldean etxeratzeko. Ordu honetan Alzola jendez beteta egoten zen, batzu ibilalditxo bat eginaz, edo ura hartuaz, etab., oso animatua benetan. Goizez sendatzea, ura hartzea, eta arratsaldean ondo pasatzea.

TX.: Beraz, gizarte harreman biziak izango ziren, ezta?

J.M.B.: Bai, pentsa, gobernua Donostiara etortzen zenean, ez ofizialki, baina ministro batzuk balneariora joaten zirela, adibidez Oriol.

TX.: Orduan, festa eta dibertimento publikoak izango ziren?

J.M.B.: Nola ez, afal ondorenean dantzaldia izaten zen, badakizue garai haiek, orain rock-a daukazue, beste garai batzu ziren. Hainbeste jende etortzen zen non sarri balnearioa beteta egon, eta alboko hoteletan lo egin behar izaten baitzuten. Baita ere, ohitura izan zen, Alzolan, sarri Debako jendeak, arratsalde pasa txokolatea txurroekin janaz egitea. Baina, garai haiek joan ziren. Begira!

TX.: Zein gela da hau?

J.M.B.: Hau jantokia genuen. Ikus dekorazioa! benetan Mann-en "Mendi majikotik" ateratako imajin bat zirudien, lanpara handiak eta nostalgia ormetan.

Baina, errealitatea zeharo ezberdina da, negozio baten gainbehera, garai bateko azken fosila, hala ere, negozioak hor dirau: garai bateko botones eta sukaldarien aurrean zazpi lagun lanean, eta Euskalerrri mailako distribuzioa, Gipuzkoan hedatuen.

TX.: Hau dena oso polita da, baina, orain posible ikusten al duzu berriro hau martxan jartzea?

J.M.B.: Ezinezkoa ikusten dut. Ari da Euskal Gobernua laguntzak eskeintzen, baina, oso kasu bakanetan ematen ditu, Zestuako balnearioari adibidez. Hemen izugarritzko inbertsioa beharko litzateke eta hori lortzea ezina da, uraren negozioa aurrera eramatearekin nahikoa da. Garai haiek hor daude eta ez dira itzuliko.

---

---

# TAUPADA



FANTASIAZ BETETAKO MUNDU TXIKI BAT

---

---

Zaila da gaur egun Taupada bezalako gauza interesgarri batekin topatzea.

Denok dakigu askotan gauzak bertan bera uzten ditugula ekimena falta zaigulako, eta beste askotan, laguntza falta delako. Baina, batzutan, gauzak laguntza asko gabe egin daitezke, eta Taupada daukagu exenplu bezala: bakarrik ilusio eta fantasia haundi bat behar dira.

Taupada antzerki talde bat da. Bere sorburua 1977 izan zen. Partaideak Elgoibarko sei gazte dira: Edurne Lasa, Jose M<sup>a</sup> Larrañaga, Mikel Osoro, Jose Martin Urrutia, Xabier Ansola eta Lorea Iriondo (musika eta argiak).


Orain arte lau obra jokatu dituzte: "Oihu gorra", "Liliput", "Haik, Maik eta Zeferina" eta "Behin batean ... ju, ju, ju ...".

Taldea sortu zutenean bi helburu nagusiri jarraitzea erabaki zuten: alde batetik, obra guztiak euskaraz errepresentatzea eta beste aldetik, gauza asko ikasi komunikazio bide hobeago bat lortzeko, gehienbat umeen mundu barruan.

Obren muntaketa beraiek egiten dute, testuak ere bai. Jeneralki, beraien obrak errerepresentatzeko ez dute eduki laguntzarik; dirua eskatu behar izan dute eta gero, obrak errerepresentatzeagatik atera duten diruarekin ordaindu.

Ez dute bide bat bakarrik jarraitu nahi, baizik eta espresio, fantasia, irudimenarekin jokatu. Gauza hauek lortzeko, musikari garrantzi handia ematen diote, baita dantza, gorputz espresioa, makilajea eta dekorazioari ere. Esan daiteke, testuak ez daukala hainbeste garrantzirik. Hori dena komunikazio bide handiago bat lortzeko da, eta batez ere umeekin.

Komunikaziozko bide berriak bilatzeak egin du gaur egun Taupadak bi proiektu desberdin edukitzea. Alde batetik Edurne eta Jose Marik errerepresentatu behar duten obra: "Ponpa eta Mobis", hemen gauza berri bat sartu behar dute, espektakulo majikoa. Beste aldetik, Txotxe eta Mikelek obra bat daukate buruan baina oraindik



gorpuztu gabe; bertan testuak beste obretan baino garrantzi haundiagoa eduki behar du.

Esaten dute oraindik asko ikasi behar dutela talde profesional bat izateko. Profesionalak izatea nahi dute, baina ez horretatik bizitzeko.

Obrak sortu eta errerepresentatu ez ezik beren fantasia eta irudimena Elgoibarko herriari eraman ere nahi zioten: horretarako antzerki eskola bat egitea zeukaten buruan. Erakunde ofizial batzurekin jarri ziren harremanetan. Lehenengo, kasu egin zieten, baina azkenean, beti bezala, hutsean geratu zen gauza eta, gainera, azalpenik gabe erakunde ofizialen aldetik.

Ikusi duzuen bezala talde honek lortu duena berak bakarrik lortu du, ia ia laguntzarik gabe (Taupadaren lokala Udaletxeak utzitakoa da).

Fantasia eta irudimenarekin gauza asko egin daitezke. Taupadaren lema "burua beti estimulatzea" dela esan daiteke.

Bukatzeko, erakunde ofizialak deitzen diren horiei zuzendu behar da esateko herriko jende gazteari antzerki eskola bat bezalako gauza interesgarriak edukitzea gustatuko litzaioke eta beste gauza asko ere bai, fantasiaz betetako mundu bat sortzeko eta honela, egunero ikusten ari garen egoeratik urruntzeko.

## ANTZERKI TALDEA



# Bertsoak

## PASAIKO PLAZATIK

Xenpelarrek

Pasaia San Joango plazak, alde batetik itsasoa du eta bestetik etxeak. Festetan zezenak eraman eta behin baino gehiagotan izan dituzte komeriak. Xenpelarrek behin han ikusia kontatzen digu bertso hauetan.

16 bertso dira hauk guztira.

Pasaia San Joango plazak, alde batetik itsasoa du, eta bestetik etxeak...



-1-

Pasaiako plazatik dator notizia, zezen bat izan dela jenioz bizia. Kantatuzera nua bistan ikusia, kontsolatzeko triste dagoen guzia.

-2-

Santiago eguna Pasaian siñale, aillegatu eztanak egin beza galde: hasieran jendia zezenaren alde, azkenian etziran amimatu zale.

-3-

Torillotik atera zuten lehendabizi, behi zahar bat gidari bandera ta guzi; harrapatzen zuena purukatzen hasi, azkenian plazatik kanpora ihesi.

-4-

Torillo bazterreko barrera tartian zezena pasatu da kolera batian; plazatikan kanpua zeudenak pakian, erdiak purukatu ditu hankapian.

-5-

Batek txapela falta bestiak txaketa, lumian zilipurdi negar eta buelta; bidia libratzeko non zeguen beta? Zezena sartu zaie kala baioneta.

-6-

Hiru komerziante plazatik kanpua, fosforo ta barkillo labana tratuan; pareta egon arren hamar oiñ altuan, panparroi juaanak dira putzura saltuan.

-7-

Saiatu nahiagatik hori umiltzera, igual sartuko zan lehoia hiltzera: egiak esan gabe ez nua ixiltzera: arrokara joan zaie lanpernak biltzera.

-8-

Arrokatik putzura sartu da igeri, burua besterikan etzuen ageri; bakerua begira bere zezenari, eserita jan ditu libra ta erdi ogi.

## «Lehenengo diskoa, Bigarren asaltoa»



Igande arratsalde batez, Gabi taberna aurreko mahai biribil batean TOL taldeko partaideekin burutu genuen elkarrizketa hau. Orduerdi inguruko tontousain eta jario latz baten ondoren, han hasi zitzaigun Jesus Mari Sarasua taldearen lehen pausoen berri ematen.

**TOL.:** Soldaduzkan nengoela, behin hona etorri nintzen, permiso bat nuela eta. Orduan Alberto Iriondok, berak organo HAMOND batekin egindako grabazio bat utzi zidan, eta entzun ondoren, gustatu egin zitzaidan, eta nik ere sintetizadore bat erosi nuen, bion artean zerbait egiteko asmoz.

**TXI.:** Hori noiz izan zen?

**TOL.:** 1981eko udan. Eta honela konposaketa lanetan hasi ginen; zerbait grabatu genuen geure kasa, J.R. Elorzak eskeintzen zuen erakusketa batetarako. Baina, grabatu genuena, zera, "Atlantis", "Obelisco" eta "Bethelhouse", oso gustokoa iruditu zitzaigun, eta geuretzat hartu genuen zinta. Zinta honen gainean piskanaka piskanaka entsaio inprobisatuak egiten hasi ginen, gai berriak jorratuz. Batzulan Javi Saez etortzen zen bere kitarra elektrikoarekin, eta 1982ko udaberrian

"Berriain 1494" gaiarekin maketa bat prestatzeari ekin genion.

**TXI.:** Orduan, talde osatzen hasiak zinatela esan daiteke, ez?

**TOL.:** Bai, halaxe da. Julen Agirre, Alberto eta hirurok talde bezala lan egiten hasi ginen, eta Javier Ezenarro tekniko lanetaz arduratzen zen. Taldea itxuratura, herriko beste musikazale batzuk beren tresnak utzi zizkiguten: Kurutz Castrillejok soinu mahai, eta Alfontso sintetizadorea.

**TXI.:** Eta, besterik ... aktuaziorik, edo ... ?

**TOL.:** maketa hori, Albertok eta biok grabatutakoa, zenbait irrati eta ETB-ra bidali genuen; baita aldizkari batzuetara ere.

Ondoren gutaz zertxobait idatzi zuten "Popular 1" eta beste aldizkari espezializatu batzuetan, batez ere "Musica Progresiva" delakoan aritzen diren aldizkarietan. Eta, aktuazioak? Ba, beno, Trinitate jaietan Udaberri taldearen aktuazio baten atsedenean jo genuen zerbait, ez? - galdetzen dio Albertori. Bai, bai, Mike Oldfield-en gai bat.

TXI.: Hori, besterik ez?

TOL.: Bai! Mauxitxa eta Zapataren ezkontzetan ere bai! - parre algarak -. Geroago, Herriz herri zirkuitoan Muskiz-en jo genuen. Sekulako montajea eraman genuen: bi furgoneta, kotxe ugari, tinbalak, diapositibak, eta beste. Ez genuen arrakasta haundirik izan rockzalez inguratutako eszenatoki hartan. Izan ere, Euskal Gobernuak gure saioa musika modernoa bezala iragarri zuen. Jendearen "marcha, mas marcha" oihuen artean, Julen zen jaun eta jabe, bere bateriarekin. Pentsazak, gure gairik martxosoena, Mike Oldffiel-en bat huen ...



TXI.: Nolabaiteko "frakasu" honen ondoren, zer?

TOL.: Beno, ba 1983ko San Bartolomeetan Odeoian jo genuen. Hori bai, lehen ezbezelako antolaketarekin. Hemen kea, dispositibak eta argi-indarra nahibeste izan genituen. Jendea nahiko gustora geratu zela ematen zuen.

TXI.: Bai? Baziren ba, aspertu zirenak ere ...

TOL.: Beno ... musika hau ... luzaroan entzuteko aspergarria izan daiteke, horregatik prestatu genuen montaje hura; Iñaki Goñi perkusioetan zegoen, eta argi ugari geneukan. Gainera egun hartan talde ezagunen gaiak jo genituen: Vangelis, Neuronium eta Tangerine Dream-enak, adibidez.

TXI.: Ba, guri behintzat, zeuek ateratako abestiak gustatu zitzaizkigun, gehienbat.

TOL.: Beno, ... guri ere hala esan ziguten, gainera Vangelis-en pieza ospetsu hori ez zitzaigun nahi bezala atera, azkarregi jo genuen eta.

TXI.: Eta handik denbora gutxira Plentzian jo omen zenuten.

TOL.: Bai, jo edo!


TXI.: Zer, ba? Han ere azkarregi ...?

TOL.: Ez, ez. Hangoa desastre hutsa izan zen, Juleni bateria erori zitzaion, eta ondoren "mekaguendios" borobil bat bota zuen, mikrofonoak zabalik zeudela, eta denak entzun zuten. Beste batetan Iñaki eta Julenek berak, ez zuten bat hartu, eta batak besteak baino lehen bukatu zuten, eta han ere Juleni "gaizki, gaizki" errudun bat entzun zitzaion. Dena borobiltzeko, arazo guztiak konpondu ondoren, "Cressendo" bat egiten ari ginela, argiak joan egin ziren.

TXI.: Gero Taupadarekin hasi zineten, ez?

TOL.: Orduan, Julenen ezbeharrak gertatu zen, eta taldean horrelako zer egin jakin ez bat nabaritu zen, eta zuek esan duzuen antzerki talde horrekin lan egin genuen






## LETRA-ZOPA JAIAI DIAN:

Letra zopa honetan sei hitz aurkitu behar dituzu. Marraskian dituzu guztiak. Aurkitu endoren irudien ondoan ipini.

## IZKUTUKO MEZUA


Joko honetan letra ordeez zeinu berezi batzu jarri ditugu. Zeinu bakoitzari letra bat dagokio. Hasi konbinazioak egiten eta ea testua osatzen duzun. Besteetan bezala, zazpi zeinuren esanahia asmatu beharko duzu. Gabriel Arestik itzulitako «Bocaccioien dekamerone tipi bat» liburutik hartu dugu pasarte hau.

ΔΑΙΡΑ ▲■◆Ι ΔΤΣΙΚ Π▲ΟΛΕ,  
Π▲ΝΕ ΔΑΠΠΔΚΙΔΕ ΔΠΔΕ ΕΔ-  
ΠΟΕΩ, ▲ΥΠΠΠ ▲ΠΟΤΔ ΔΤΑ  
ΔΠΟ ▲ΑΥΠΑ ΑΣΚΟΤΑΕ, Δ▲■Δ  
ΔΕ▲▲Α ΟΡ▲Ι ΜΑΙΤΑΠΔΚΟ ΔΤΑ  
ΗΟ▲ΚΤΙ ▲Ο▲ΑΤΙΚΟ ▲ΥΠΠΠ  
ΠΥΗΥ▲ ΔΤΑ Ρ▲ΥΔΕΓΑ ΠΑΛΑ.



## HERENSUGE SILABIKOA

Hamabi hitz asmatu behar dituzu herensuge silabiko honetan. Hutsune bakoitzean silaba bat sartu behar duzu. Baina fontuan izan hitz bakoitzaren azkeneko silaba hurrengoaren aurrenekoa dela.




- 1.-Zuhaitzak botatako adar berri-berria.
- 2.-Ez da inoliz edo inon bukatzen.
- 3.-Gizaldia.
- 4.-Din ja biziro maite duena.
- 5.-Arain ezagun baten deribatua.
- 6.-Kili kilia.
- 7.-Sekula asmo onik ez duena.
- 8.-Zenbait ibilgailuren piezarik garrantzitsuenetakoa.
- 9.-Trapu zaharra.
- 10.-Min egiteko joera.
- 11.-Amaren sabeletik jaiotzen da.
- 12.-Barafzetik ateratako jakiei esaten zaie.

## ZINEMAN LIGATU NAHIAN

Igande arratsalde batetan harroputz bat sartzen da Donostiako Miramar zinemari. Filmea jada hasita dago eta deika hasten da:

- Psst! Linternazaleaa!
- Akomodadorea hurbiltzen zaio eta galdetzen dio:
- Zer nahi duzu?
- Begira, neska ederren bat nondagoen esaten badidazu, hogeituroko eskupekoa emango dizut.
- Baaa, nik ez dut ikusi baina hamargarren iladap txarolezko poltso bat ikusi dut, eta jakina da horrelako poltsoak, neska politek erabiltzen dituztela bakarrik.
- Gure harroputza exeri da hamargarren iladan eta handik hamar minututara izugarritzko kolpea entzuten da.
- Hau ko'pia! Hor'zik gafe u'zi nau. Fainan hura ez zen pol'zo bat, hura triko'nio bat zen, kab'oi!

# DEIBORAPASA



AURKI ITZAZU SUKALDE ETA  
JANUARIAREKIN ZER IHUSIA  
DUTEN 20 GAUZA.

## ABOKATU MUNDIALA

Aldo Katu zen hiri hartako abokaturik famatuena. Al Kopone mafioso ezagunak bera hartu zuen bere kasuan defenditu zezan.

Espetxera joan zitzaion gure legegizona. Ordu pare batez aztertu dute afera, abokatuak atxilotua mila galdera egiten dio, eta azkenean diru asuntiaz hitzegiteko garaia heldu zaie.

— Beraz, nere prezioak argi eta garbi esplikatuko dizkizut. Zure kasua galtzen badugu ehun mila dolar kobratuko dizut, eta irabazten badugu hamabi duro.

— Alderantziz esan nahiko zenuen...

— Zaude isilik, babo arraioa. Nik badaikit zertan ari naizen.

## VASEKTOMIA


Aspalditik ez zuten elkar ikusten bi adiskide haiek, eta kalean topo egitearen pozez ostatu batera joan ziren trago bat hartzera. Mila kontu esan zituzten, eta azkenean.

— Ba, motell, ez zekiat zer irudituko zaijan baina egin berria diat vasectomia.

— Vasectomia? Zertarako?

— Haur gehiago ez ekartzeko. Hik ere egin behar huke.

— Ba! Horiek memelokeriak dituk. Ez diat ezagutzen inor eskua haurdun geratu zaionik.



8 AKATS

## IZKUTUKO MEZUA


Joko honetan letra orde z zeinu batzu dituzu. Zeinu bakoitzari bere letra dagokio. Hasi konbinazioak egiten eta ez textua osatzen duzun. Aurrekoetan bezala zazpi zeinu jarri ditugu. Luis Haranburu Altunaren liburu batetik hartua dago pasarte hau.

I▲OR■ ERE EZ ZE■IE▲  
▲O▲DI■ ETORRI□ ZE▲.  
H□RRI□■ ET□ O▲TTO□■  
▲EZ□LA □ORT▲ OME▲  
▲OTZ▲■ DIOTE▲EZ. ▲E□TE  
▲OTZ▲ TR▲MOI ◆□▲ ▲□TEZ  
IJITO ET□ ■OMERIO▲TE■  
HORROPOTA□ IZ□▲ OME▲.

▲ =  
■ =  
△ = R  
▲ =  
□ = O  
□ =  
◆ =

# TALOIAK ERE BETE ITZAZU EUSKARAZ

**URKIZABAL  
DIRUETXEA**



TXEKE HONEN ORDEZ Kahier Amundaraini PTA 3.770.000 ORDAIN

hiru miloi zazpiehun eta hamar.

geita hamar mila Urria REN Hamaru PEZETA A

Abendua, 1986 KO

*Maria Penabaz*

#672543240095# 46314#

## BETE ITZAZU TXEKEAK EUSKARAZ

0 zero	12 hamabi	24 hogeitalau	36 hogeitamasei	300 hirurehun
1 bat	13 hamahiru	25 hogeitabost	37 hogeitamazazpi	400 laurehun
2 bi	14 hamalau	26 hogeitasei	38 hogeitamazortzi	500 bostehun
3 hiru	15 hamabost	27 hogeitazazpi	39 hogeitameretzi	600 seihun
4 lau	16 hamasei	28 hogeitazortzi	40 berrogei	700 zazpiehun
5 bost	17 hamazazpi	29 hogeitabederatzi	50 berrogeitamarr	800 zortziehun
6 sei	18 hamazortzi	30 hogeitamar	60 hirurogei	900 bederatziehun
7 zazpi	19 hameretzi	31 hogeitamaika	70 hirurogeitamarr	1.000 mila
8 zortzi	20 hogei	32 hogeitamabi	80 laurogei	10.000 hamar mila
9 bederatz	21 hogeitabat	33 hogeitamahiru	90 laurogeitamarr	100.000 ehun mila
10 hamar	22 hogeitabi	34 hogeitamailau	100 ehun	1.000.000 milioi bat
11 hamaika	23 hogeitahiru	35 hogeitamabost	200 berrehun	

- Al portador - Eramailari. Bereko izena jartzen bada, kontsonantez bukatzen direnei -i erantsiko zaie, eta bokalez bukatzen direnei -ri. Ad: Miren Murua-ri / Imanol Hernandez-i.
- Ehunetik beherako zenbakiak lotuta idatziko dira. Beste zifrak "eta" hitzaren bidez lotuaz: 59: Berrogeitemeretzi / 1.567.843: milioi bat, bostehun eta hirurogeitazazpi mila, zortzirehun eta berrogeitahiru.
- Hilabeteak: Urtarrila, Otsaila, Martxoa, Apirila, Maiatza, Ekaina, Uz-taila, Abuztua, Iraila, Urria, Azaroa eta Abendua.

# KONTUAK EUSKARAZ

**URKIZABAL  
DIRUETXEA**

TXEKE HONEN ORDEZ Kahier Amundaraini PTA 3.770.000 ORDAIN

hiru miloi zazpiehun eta hamar.

geita hamar mila Urria REN Hamaru PEZETA A

Abendua, 1986 KO

*Maria Penabaz*

#672543240095# 46314#

**ONGI ETORRIA  
KUTXAZAIN  
AUTOMATIKORA**

CAMBIO  
DE IDIOMA  
HIZKUNTZ  
ALDAKETA

# ZURE ESKU DAGO